



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2021EKO MARTXOAREN 18AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko martxoaren 18an, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz., Santos Etxegia, Olatz Dorai, eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena eta Julen Beunza.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Otsailaren 25ean egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2021/10 alkate ebazpena onartuz Sandra Balda eta Euken Mindegiak egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Orokietako Apezetxea etxeko lehenengo pisua etxebizitza bezala eraberritzeko, diru laguntza 2.291,05 eurokoa.
- 2021/11 alkate ebazpena Teofila Azpiroz Garrok egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Berueteko 11. Poligonoko 22. Lursailean dagoen etxeko teilatua eta fatxadak berritzeko eta kalefakzio instalazioa egiteko, eta obra bukaerarenkin lotuta EIOZren behin betiko likidazioa.

- 2021/12 alkate ebazpena Gaztandegi Dorrea S.A. enpresak egindako obra baimena eskaera onartuz, Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean eguzki plaken azpiegitura egiteko aurrekontua 47.800,05 eurokoa izanik.
- 2021/13 alkate ebazpena M^a Jesús Apezteguia Esquizabalek egindako obra baimena eskaera onartuz Gartzarongo Martiñenea etxebizitzan teilatua berritu eta leihoak aldatzeko aurrekontua 16.719 euro.
- 2021/14 alkate ebazpena Iñigo Navarro Arangoak aurkeztutako aitoren arduratsua onartuz Berueteko 11. Poligonoko 41. Lursailean dagoen etxearen balkoia berritzeko eta fatxadako juntura berdintzeko eta ikusita ez dagoela oztopo urbanistikorik, obra honen aurrekontua 5.347 eurokoa da.
- 2021/15 alkate ebazpena onartuz Basaburuko udaleko eraikinen garbiketarako zerrendarako aurkeztutako behin behineko zerrenda, onartutakoak eta ez onartutakoak eta alegazioak egiteko epea ireki.
- 2021/16 alkae ebazpena onartuz Renoven zurgindegia enpresak aurkeztutako aurrekontua, Aizarotzko herrikoetxeko aterpea isteko, 6.425,47 euro BEZ kanpoko kostarioarekin.
- 2021/17 alkate ebazpena Nafarroako zerga ogasuneko lurralde aberastasunaren zerbitzuko zuzendariak Otsailaren 15eko 2021/2 ebazpenean zehaztutakoa eta bidalitako balioen zerrenda onartu.
- 2021/18 alkate ebazpena luzatzea 2021 urterako 2020 urteko aurrekontuak Nafarroako Toki Ogasunen, 1995/2 Foru Legeak, martxoaren 10ekoak, 203. artikuluan eta aurrekontuen eta gastu publikoaren gaian toki ogasunen foru legea garatzen duen 1998/270 Foru Dekretuak, irailaren 21ekoak, 20tik 25era doazen artikuluetan ezartzen denaren arabera.
- 2021/19 alkate ebazpena onartuz aurkeztutako proposamena eta esleitzea Aizarotzko herrikoetxeko ostatuko kudeaketa Gaizka Baquedano Iribarren 33448844J NAN zenbakidunari, onartutako baldintza pleguaren arabera
- 2021/20 alkate ebazpena onartu Trinidad Prietoren aurkako txosten zigortzaileari hasiera ematea landaetxe iharduera irekiera baimenik gabe egiteagatik.
- 2021/21 alkate ebazpena onartu Trinidad Prietoren aurkako txosten zigortzaileari hasiera ematea Iriarteko borda eraberritzeko obrak baimenik gabe egiteagatik.
- 2021/22 alkate ebazpena baimena ematea Aralar Musika Eskolari martxoaren 29an, astelehena, Apeztegiberriko ganbara erabiltzeko, 14:45etatik aurrera grabazio emanaldiak egiteko. Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain harte onartutako ebazpenak.

Gai ordenetik kanpo badaude beste bi gai aztertzeko eta bildutakoek aho batez onartzen dute bi gai horiek presazkoak izanik gai ordenean sartzea...

3.- Aholkularitza juridikoa. Kontratuaren esleipena.

Alkateak azaltzen du bukatu zela dokumentazio aurkezteko epea, prozedura irekia erabili dela kontratua esleitzeko eta proposamen bakarra aurkeztu dela Biderka Aholkularitza enpresarena. Irekitzen da aurkeztutako proposamena eta plegu teknikoaren arabera balorazioa egiten dute bildutakoek.

Balorazio teknikoarekin lotuta bildutakoek aztertzen dute aurkeztutako dokumentazioa ikusiz zenbat pertsonak osatzen dute enpresa eta huen lan banaketa eta 10 puntuko

balorazioa ematea adosten dute. Bestetik kontratu antzekoak baloratzeko orduan bildutakoek ikusten dute ze udalekin egiten duten lan aurkeztutakoek eta aho batez 10 puntu ematea ere adosten dute.

Proposamen ekonomikoa irekitzen da bukatzeko eta 4.000 euro BEZ kanpo urteko proposamena aurkezten dute eta hortaz 40 puntuko balorazioa dagokie 8.2 baldintzaren arabera. Guztira hortaz 60 puntuko emaitza jasotzen du Biderka Consulting enpresak.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, kontutan hartuta pleguaren 9. Artikulua eta Kontratu Publikoen Foru Legearen 101. Artikulua (esleipena 10 egunen epean bertan behera geldituko da esleipenaren jakinarazpena bidali ondoren. Epe hori pasatzean kontratua sinatuko da enpresarekin):

- **Onartzea Basaburuko udaleko lan aholkularitza kontratua Biderka Consulting S.L enpresari B 31946866 IFZ zenbakidunari esleitzea baldintza pleguan eta bere proposamenean zehazten diren baldintzen arabera eta 4.000 euro BEZ kanpoko urteko gastuarekin.**
- **Jakinarazi erabaki hau Biderka Consulting S.L enpresari.**

4.- Iharduera ekonomikoen gunea egiteko udal planaren egiturazko aldaketa.

Behin behineko onespena.

Alkateak azaltzen du iharduera ekonomikoa sortzeko gunearen udal planaren aldaketa behin behineko onespena jaso zuela 2020ko uztailaren 31ean, eta Nafar Gobernuak behin betiko onespena eman behar diola egiturazko plan aldaketa honi.

Lurralde eta Paisai Ataleko txostena jaso da, otsailaren 24an, aipatutako akordioaren inguruan eta dokumentazio gehigarria aurkeztea eskatzen da. Arkitektoak prestatu du jada dokumentazioaren gehigarria informazio georeferentziatua sartuz eta udalak dokumentazio hori onartu eta idazkariak diligentziarekin bidaliko du. Aipatutako eskaeran ere zehazten da udalak gutxieneko hornidura eta azpiegituren inguruan txostena edo aipamena egin behar duela eta hortaz arkitektoak ere argudiatu du, dokumentuaren memoria teknikoan bermatzen dela 9.1 eta 9.2 ataletan ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura Beramendiko herrian dagoen ur zikinen sisteman kolektore berria eginaz.

Hau guztia ikusita bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute.

- **Behin behinekoz onartzea Iharduera ekonomikoen gunea egiteko udal planaren egiturazko aldaketa, kontutan hartuta Lurralde eta Paisai Atalak eskatzen dituen dokumentuak aztertu direla eta onartu ere.**
- **Adieraztea, ur hornidura memoria teknikoaren 9.1 puntuan zehazten den moduan bermatuko dela, eta ur zikinak 9.2 puntuan zehazten den bezala ere.**

- **Jakinaraztea erabaki hau Nafar Gobernuari egiturazko aldaketaren behin betiko onespina emateko eskatuz, Hirigintza eta Lurralde Antolamendu foru legearen testu bateratua onartzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 77. Artikuluan oinarrituz.**

5.- Iharduera ekonomikoen gunearen plan partziala eta urbanizazio proiektuen erredakzioa arautuko duen plegua.

Alkateak azaltzen du, aurreko puntua onartu ondoren eta martxan jartzeko industria gunea, lehenik plan partziala onartu behar dela ondoren urbanizazio proiektua eta bukatzeko birzatiketa proiektua ere. Hauen tramitazioa bukatzen denean 1. Faseko obrak hasi ahalko lirateke.

Aipatutako dokumentuak prestatzeko, kontutan hartuta gastua, ezin da zuzenean zerbitzu kontratu hori esleitu Kontratu Publikoen Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera eta hortaz prozedura irekia egiteko txostena prestatu du udal idazkariak eta kontratu hori esleituko duen baldintza plegua.

Bildutakoek aztertzen dute prestatutako plegua eta bertan balorazioa egiterakoan kontutan hartu dituzte irizpide hauek pleguan txertatuko direnak:

Proposamen ekonomikoa osotara 32.000 eurokoa izanen da, plan partzialerako 12.000 eta urbanizazio proiekturako 20.000 eurokoak hurrenez hurren.

Dokumentazioa aurkezteko epea 30 egunekoa izatea ere adosten dute bildutakoek, iragarkia argitaratzen denetik.

Dokumentuak prestatzeko taldeari ez zaio gutxienerako berme tekniko edo profesionalik, edozein arkitekto egin ahal duelako lan hau behar diren beste profesionalak kontratatuz. Euskaraz hitzegiteko gaitasuna duen norbait lan taldean izatea baloratuko da baldintza pleguaren 11. Artikuluan.

Balorazioa modu honetan finkatzea adosten dute bildutakoek:

Proposamen ekonomikoa 60 puntu.

Euskara 5 puntu.

Dokumentuak aurkezteko epea jeistea 30 puntu.

Aipatutako zuzenketak txertatuz, bildutakoek aho batez onartzen dute ondoren zehazten den erabakia:

- **Iharduera ekonomikoen gunearen plan partziala eta urbanizazio proiektuen erredakzioa arautuko duen plegua onartu dute eta proposamenak aurkezteko epea 30 egunekoa finkatzea Plena Plataforman iragarkia jartzen denetik.**

6.- Mozioak.

Ez dago moziarik.

7- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Mimukai proiektuaren aurkezpena egin zen aurreko astean eta osasun araudiaren betetzean sakondu zen, orain Lekunberrin 1 eta 3. Sektoreak uztartzeko bilera egingo da.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

2021-2022 ikasturterako aurre matrikula epea bukatu zen martxoaren 15ean eta 9 familia aurkeztu dira. Aurreko urtetik 4 familiek egin dute lanpostu erreserba.

Kontzejuan Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa

Baserrien identifikazio proiektua lantzen ari da kontzejuetako alkateekin.

8- Informazio orokorra.

- Igoako Kaskailu harrobiaren ustiapena bertan behera gelditzen dela eta iraungitzea onartzen du Nafar Gobernuak, Lurralde eta Paisai Atalak.
- Adinduen yoga programarako Kirol eta Gaztedi Institutoak 2.509 eroko diru laguntza onartu du ikasturte honetarako.
- Udal planararen berrikuspen dokumentuaren inguruan Industria Lurreko Ataletik egindako txostena jaso da eta bertan aipatzen da, ez dela gehiegi aipatzen iharduera ekonomiko gunea eta 3. Sektoarekin lotuta aurreikusten den borden erabilera berria nahiz eta ontzat eman, 1. Sektoarekiko lotura mantentzea funtsezkoa dela argudiatzen dute. Txosten hau arkitektoari helarazi zaiola aipatzen du alkateak kontutan hartu dezan behin behineko dokumenturako.

9. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:20 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.